

Arrantza-kanabera automatikoa

Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Beharra / arazoa: arrainari tiraka egiten dionean kanabera automatikoki erreakzionatzea, arrantzalea erne egon behar ez izateko une oro.

Konpontzen duena:

Arrainaren hozkadak ez galtzea.

Erantzun azkarra bermatzea.

Eskulan gutxiago egitea.

Denbora aurreztea arrantzan.

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gure kañabera automatikoak arrantza esperientzia errazten du . ziztada detektatu bezain laster, sistema automatikoak arraina harrapatzeko mugimendua egiten du. Ez duzu aukera bakar bat ere galduko. Teknologia adimendunarekin, material arinekin eta diseinu ergonomikoarekin, arrantzale modernoek nahi duten konfiantza eta erosotasuna eskaintzen dugu.

Nik arrantzaleei laguntzen diet arrain gehiago harrapatzen, gure kañabera automatikoaren bidez, modu azkar eta zehatzean, arrantzaleak lasai egon ahal izan dezan.